

# Jazarpen ikusiezina

EILASek uste du ikastetxeei plangintzak exijitu behar zaizkiela ikaskideen artean gertatzen diren erasoari aurre egiteko

AGURTZANE SOLABERRIETA

Pertsona baten bizitza infernu bihurtzea, ikastetxe guztietan ahulenen kontra etengabe jotzen duen harroputza egotea eta ezberdina izateak ekartzen duen diskriminazioa ohiko egoerak dira oraindik ikastetxeetan. Egoera ikusiezinak askotan. Portaera oldarkor eta diskriminatzaile horiek oso ondorio larriak dituzte bai jasaten dituztenengan, baita eragiten dituztenengan ere; are gehiago adingabeak direnean, bizitza osoan nabaritzen baitira. Ikaskideen arteko jazarpen egoera (*bullying* deritzona) oraindik ume jokotzat jo ohi dute askok. Ume joko horrek, ordea, depresioak eragiten ditu, eta beren buruaz beste egitera ere bultzatzen deza. Horixe lehengo astean Hondarribian gertatutakoa. Mutil gazte batek bere buruaz beste egin zuen, ustez ikaskideren partetik jasaten zituen tratatu txarren ondorioz. Gertaera lazarri horrek argitara ekarri du ikusiezina zena.

EILAS sindikatuak denbora luzea darama gaia aztertzen. Gaztela eta Leongo (Espainia) STE sindikatuko Lan Osasuna arloko arduradun Jose Maria Avilesek ikasleen artean gertatzen diren jazarpen egoeren inguruko doktorego tesia egin du. EILASek lana argitaratu, eta eskuragarri jarri du edozeinentzat. Arduradu-

## RUBEN BELANDIA

(EILASeko kidea)

«Biktinek tokatu zaiena merezi dutena dela barneratzen dute; errudun sentitzen dira»

«Hondarribikoak arazoaz jabetzeko balio behar du, eta gobernuek neurriak hartu behar dituzte»

na Ruben Belandia da, eta luze eta zabal hitz egin du BERRIArekin *bullying*-ari buruz.

### 'Bullying'-az, hitz bi

Ingeleseztan *bully* hitzak harroputz edo ahobero esan nahi du; *bullying* egitea, berriz, bere burua gehiagotzat daukan ikasle batek edo batzuek ahulagotzat daukan beste bat biktimatzen hartzea: irain egiten dio, jo egiten du, beldur batean dauka.

Ruben Belandiaren esanetan, ikaskideen artean ohikoa den joera hori noiz den jolasa eta noiz jazarpena jakiteko, erasoaren jarraikortasunean datza: «*Bullying*-a izateko, erasoak behin eta berriro gertatu behar dira, eta parte-hartzaile berberak izan behar ditu: pertsona bat jomuga bezala hartu eta erasotzen diote». Jose Mari Avilesek txostenean dio, lau *bullying* mota daudela: fisikoa (ostikoak, ukabilkadak...), hitzezkoa (irainak, goitizena jartzea, jendaurreko arbuioa eta akats fisikoren bat nabarmenzea...), psikologikoa (norbanakoaren autoestimua ahuldu nahian biktima beldurrarazteko eginiko ekintzak...) eta soziala (gizabanakoa bakan-du nahi dute eta besteak pertsona horrekin harremanak ez izatera behartzen dituzte).

Avilesen ikerketaren arabera, erasotzailea mutila izaten da kasu gehienetan, fisikoki indartsua, askotan biktima baino zaharragoa eta indarkeria erabiltzeko joera duena. Onartezinari eta onargarriaren arteko muga ez du bereizten. Horren zergatiaz hitz egin du Ruben Belandiak: «Gaur egun gurasook seme-alabekin egoteko denbora gutxiago izaten dugu, eta denbora urri horretan ez dugu errietan aritzeko gogorik izaten. Horregatik, ume batzuek nahi dutena egiten lortzen dute sarritan. Gero, jarrera horiek beste eremu batzuetara eramaten dituzte».

Biktimen kasuan ere mutilak dira nagusi. Ahulagoak izan ohi dira, isilak, bakartiak, autoestimua apalekoak. Askotan eraso-



JOKIN Z. HIL ZEN TOKIAN, Hondarribiko harresiaren magalean, lagunak eta ikaskideek lore sortak, kandelak eta idatzi ugari uzterazi zituzten.

## PLANGINTZAK

### 'Bullying'-ari aurre egitea guztien ardura da

*Bullying*-ari aurre egiteko plangintza ereduak proposatzen ditu Jose Maria Avilesek. Haren esanetan, aurrea ikastetxearen diagnostikoa egin behar da eta bertan hezkuntza proiektua eta *bullying*-arekiko eskola komunitatearen egoera aztertu behar da. Gero, plangintzak egin behar dira, eskola

komunitateko kide guztien artean. Honakoak jaso behar ditu: irakasleen, ikasleen, familien eta zuzendaritza taldearen ardurak; aurre egiteko estrategiak; jarraipena nola egin eta ebaluazioa. *Bullying*-a arina edo larria bada, erantzun desberdinak eman behar dira. Gertakariak arinak direnean, honako hau

egitea proposatzen da: errieta gogorra, zigorrak eta gatazka konpontzeko bilerak. Gertakariak larriak direnean, berriz, honako hau: ikastetxeak laguntza eman behar du, txostenak ziurtatu, ikastetxeak eta familiek parte hartuko dutela ziurtatu, gertakariaren parte hartu duten ikasleak ikastetxetik kanporatzeko edo aldatzeko neurriak baloratu, eskolaren aurka bidera daitezkeen ekintza legetarako prestatuta egon...

tzaileak biktimaren ezaugarri fisikoak hartu ohi ditu erasorako aitzakiaz: ile edo azal kolorea, lodia edo argala egotea, betaurrekoak... Alabaina, Belandiaren esanetan, ezaugarri fisiko horiek ez daude derrigorrean *bullying*-arekin lotuta: «Denok ditugu ezberdintzen gaituzten ezaugarriak. Eta pertsona bat jomugatzat hartzean, berak dituen ezaugarri horiek erabiliko dira bere kontra jotzeko».

Biktinek isilean gordetzen dituzte jasaten ari diren erasoak. Alde batetik, erasotzailearen mehatxuaren ondorioz —'hau ezin diozu inori esan; bestela, bikoitza jasoko duzu'— eta, bestetik, biktimak lotsa sentitzen dutelako. «Egunero erasoak jasaten dutenen artean zergatik erasotzen dieten galdetuta, gehienek erantzuten dute merezi dutela. Tokatu zaiena merezi dutela barneratzen dute», azaldu du. %20

ez dio inori esaten zer gertatzen ari zaion. Hori dela medio, guraso eta irakasle gehientsuenak ez dira ohartu ere egiten inguruan gertatzen ari denaz eta konturatzeko direnerako egoera hori muturrera iritsi delako konturatu ohi dira. Eta, agian, berandu delako. Belandiak dio gurasoek adi egon behar dutela eta seme-alabengan edozein aldaketa sumatu bezain pronto, ikastetxearekin harremanetan jarri behar du-

## Ikasleen %6k etengabe jasaten dute erasoak

EILAS sindikatuko Lan Osasuneko arduradun Ruben Belandiak adierazi duenez, Espainiako ikastetxe batzuetan eginiko ikerketa batzuen arabera, ikasleen %6k sufritzen dute etengabeko jazarpena.

Zifra horiek Hego Euskal Herrira ekar daitezkeela dio, hemen ere egoera antzekoa baita. Ikerketa horren arabera, %90ek ikusi du halako ekintzaren bat behin edo behin. Halaber, %40 izan dira noiz edo noiz

erasotzaile edo biktima. Azkenik, ikasleen %1ek jasaten du egunero jazarpena. Europako beste herrialdeetan %10 ikaslek sufritzen dituzte erasoak, eta AEBetan, %20k.



...n ari dira, haren oroimenez. GARI GARAJALDE / ARGAZKI PRESS

tela. «Argi gorria pizten da ikaslea ikastetxera joan nahi ez duenean edo ez joateagatik gaixorik dagoela esaten duenean, edo kolpeak dituenen...»

Jose Maria Avilesek *bullying*-ak etorkizunean biktimarengan eta erasotzaileengan izan dezakeen ondorioak ere aipatzen ditu. Ondoriorik kaltegarrienak biktimak nozituko ditu: autoestimua murriztea, depresioak, segurtasun eza eta eskola porrota. Erasotzaileak ere izango du ondoriorik: jazarpen ekintza gauza on bezala hartzea eta taldean estatua lortzeko metodotzat hartzea. «Gizarte harremanak era horretara ezartzen direla ikasten badute, ekintzok bizitzako beste esparruetan ere ezarriko ditu; esaterako, familia eratzen duenean eta lan eremuan». Bada, halaber, kontuan izan beharreko beste giza talde bat ere: eraso horiek ikusi dituztenak. Ikusle horiek indarkeria bitarteko bezala erabiliz beste pertsonak menperatzea lortzen dela ikasten dute, eta, gainera, ondorio txar gutxi-ekin. Halaber, biktimak tratatu txarren ondorioz zerbait larria egiten badu, ikusleak errudun

sentituko dira bizitza osorako, tratatu txarrak ematean ez zutelako ezer egin.

### Neurrien beharra

*Bullying*-ari aurre egiteko bide eraginkorrena prebentzioa dela uste du EILASeko kideak. Ikastetxe guztiak arazo honetaz kontzientziatu beharra azpimarratu du: «Irakasleak prestatu behar dira, heziketa ez baita soilik matematikak edo historia irakastea. Elkarbizitzarako balioak ere irakatsi behar dira. Horretarako, ordea, bitartekoak jarri behar dira». Horixe eskatu dio Belandiak Nafarroako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari. «Hondarribian gertatutakoa arazoaz jabetzeko balio behar du. Legeak egin behar dira, eta ikastetxei *bullying*-ari aurre egiteko plangintzak exijitu behar zaizkie». Ingalaterran hori egin zela azaldu du. Han urtean batez beste 16 suizidio gertatzen dira, eta horrek Gobernu legeak egitera eta neurri zehatzak hartzea bultzatu zuen. «Halako beste gertaerarik ez gertatzeko pausoak eman behar ditugu».

## GARBIÑE ARRIZABALAGA ① EUSKAL HERRIKO GURASOEN ELKARTEKO KIDEA

# «Argitara atera arte, ez gara kezkatzen arazoez»

AS.- DONOSTIA

Egunotan kezkatuta dabil Garbiñe Arrizabalaga. Hondarribian gertatutakoaren ondotik, gurasoen artean psikosia nabarmendu du. Ikaskideen arteko arazoak beti izan direla azpimarratu du eta arazo horri aurre egiteko beharra nabarmendu du.

### Hondarribian gertatutakoaren ondotik, asaldatzeko egoeran al gaude?

Ez, baina erne egon behar dugu. Ikaskideen arteko erasoak edo *bullying*-a beti izan dugu. Baina betikoa: arazo bat dugu, baina argitara atera arte, ez gaitu arazoak kezkatzen. Indarkeria mota honen ondorioak ez dira ikusten. Orain arazoa azaleratu egin da, azaleratu zitekeen erarik dramatikoenean.

### Gurasoen artean psikosirik sumatu al duzu egunotan?

Hedabideek gai honi tratamendu serioagoa eman behar diote, gizartea aztoratu dutelako. Gu-

rasoen artean psikosia sortu da. Irratira guraso askok deitu dute, hainbat tratatu txarrez hitz egiteko. Zuhurrak izan behar dugu. Beldur handia ematen dit orain gauzak bere onetik ateratzea, eta errua irakasleena eta hezkuntza sistemarena dela ematen du. Haur baten heziketa ez dagokio bakarrik irakasleari. Ardura nagusia gurasoek dugu. Gurasoei esan nahi nieke etxe barrura begiratzeko: seme-alabei arreta jartzeko eta komunikaziorako bideak sortzeko.

### Halako kasuren bat atzemanda, zer egin behar dute gurasoek?

Presio horiez jabetzea oso zaila da, biktimak isilean izaten dituelako. Halako kasuren bat atzemanez gero, bi aholku ematen ditugu: alde batetik, seme-alabei ezin diegu esan: 'ez larritu, zeure burua defendatzen saiatu behar duzu, ume kontuak dira...'; bestetik, ezin gara gu bakarrik arduratu. Arazoa ez dago

familian; kanpoan dago. Gainera, ezin dugu bakarrik biktimarekin lan egin, erasotzailea ere hor dago. Halako kasuren bat atzeman bezain pronto (jarrera aldaketak, segurtasunik gabe ikustea, jateari uztea, ez dute etxetik atera nahi...), irakaslearekin harremanetan jarri behar dugu.

### Araoari aurre egiteko baliabiderik ba al duzue?

Oso gutxi daude, eta daudenak ez daude egonkortuta hezkuntza sisteman, ez ikastetxeetan ezta familietan ere. Elkarbizitzarako, prestakuntzarako eskaintzak izaten dira; oso bakanak izaten dira, ordea. Plan integrala behar dugu eta baliabideak bi esparrutara bideratu behar dira: batetik, gurasoei bideratutakoak heziketaren ikuspuntutik (arauak, errespetua, lagunekiko eta familiarekiko elkarbizitza...); eta, bestetik, irakasleak prestatzera bideratutakoak.

# Jokin ustez jipoitu zuten ikasleei galdeketa egingo die Ertzaintzak

Autopsiak dio hil baino zortzi-hamar egun lehenago jipoiak hartu zituela

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

Hondarribian bere buruaz beste egin zuen gaztearen gorpuari autopsia egin dion auzitegi-medikuak adierazi duenez, hil baino zortzi-hamar egun lehenago jipoitu egin zuten. Autopsiak, beraz, baieztatu egin du Jokin Z.aren familiak uste zuena. Familiak esan zuenez, gazteak bere buruaz beste ikaskideen partetik jasaten zituen tratatu txarren ondorioz egin zuela.

Gipuzkoako Adingabekoen Fiskaltzak hartu du kasua ikeritzeko ardura. Fiskaltzaren aginduz, Jokin ustez jipoitu zuten ikaskideei galdeketa egingo die Ertzaintzak. Hondarribiko institututik aldi baterako kanporatu dituzten zortzi gazteek deklaratu beharko dute, baita institutuko beste ikasle batzuek, irakasleek eta gaztearen gurasoek ere. EAEko Hezkuntza Sailaren Ikuskaritzak amaitu ditu jada institu-

tuko arduradunekin egunotan izan dituen elkarrizketak, eta ikerketa garatuko duen Fiskaltzaren esku utzi dituzte ondorioak.

Bestalde, gurasoek ez dute oraindik salaketarik jarri. Oraindik ez dute erabaki zein zigor eskatu, ezta semearen ustezko erasotzaileez gain institutuko irakasleek kontra ere salaketa jarriko ote duten ere, Jokinen aurkako jazarpena eta erasoak eskola barruan gertatu zirelako.

### Irakasle baten parte hartzea

Jokinen aurkako jazarpena iragan ikasturtean hasi zen, hestetako arazo baten ondorioz kaka gainean egin zuenean. Erasoak Zuazan (Araba) eginiko kanpaldi baten ostean areagotu ziren. Jokin eta beste hainbat lagun haxixa erretzen harrapatu zituzten irakasleek. Gurasoei gutuna bidali zieten gertatutakoaren berri

emateko, baina eskutitza Jokinen etxera bakarrik iritsi zen, beste ikaskideek gutuna lehenago hartzea lortu zutelako. Jokinen aitak beste gurasoei esan zien, eta orduetik lagunek salataritzat jo zuten Jokin.

Kaka gainean egin zuen urteurrena «ospatzeko» —irailaren 14an—, ikaskideek gela osoa komuneko paperez bete zuten. Gehienak barrez hasi ziren, eta irakasleak Jokini agindu omen zion papera kentzeko. Hurrengo bi egunetan Jokin ez zen institutura joan. Hutsegite horien berri emateko irakasleak gurasoei deitu zien. Orduan hasi ziren familiarean eta irakasleek susmoak. Tutoreak Jokinen amari 20an ikastetxera ez bidaltzeko eskatu zion, ustezko arduradunekin hitz egin behar zuelako. Hurrengo egunean ere ez zen ikastetxera joan, eta gehiago ez joatea erabaki zuen Jokinek: Hondarribiko harresitik burua bota zuen.